

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Interprete Gazteen IV zikloaren baitan, bosgarren kontzertua ostegun honetan

*Emanaldia Fernando Remacha Auditorioan izango da 19:30etan eta sarrera doakoa da*

Asteazkena, 2019.eko martxoak 6

Fernando Remacha Auditorioak ostegun honetan saxofoi, flauta, bombardino eta gitarra kontzertua eskainiko du Nafarroako Goi Mailako Musika Eskolako 4. mailako ikasleen eskutik. Interprete Gazteen IV zikloko bosgarren kontzertua 19:30etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da aretoa bete bitartean.

Ostegun honetako protagonistak Leire Unzué saxofonista, Itziar Calvo flautista, Beltrán Fuerza,

bombardino-jotzailea eta Amaia Valdés guitarrista izanen dira. Laukoteak estilo ezberdinetako obrak eskainiko ditu. Hasteko, Antonio Vivaldiren 'RV 853 Sonata' eskainiko dute, gitarrako laukotearentzako prestatutako bertsoan eta obra honetan losune Martín, Diana Arnedo eta Adrián Sáenz de Albéniz musikariek ere parte hartuko dute. Jarraian, Philip Sparke sortzaileak, bombardino eta bandarako sortutako 'Harlequin' pieza eskainiko dute, bombardino eta pianora moldatutako bertsoan; Joaquin Rodrigoren 'Aranjuezeko Kontzertuaren' pasarte bat gitarra eta pianorako bertsoan; Eugène Damaréde autoreak 'Le tourbillon' flauta eta pianorako sortutako obra; eta azkenik, Robert Paterson estatubatuarrak flauta eta baxurako sortutako 'Estsanatlehi' eta flauta eta marinbarako sortutako 'Stilnees' obra eskainiko dituzte, azken hau, Alejandro Carrascoso musikariarekin batera.

Interprete Gazteen Zikloaren IV edizio honetan espezialitate klasikoetako 4. mailako ikasleek hartzen dute parte; bombardinoa, kantua, klarineta, txirula, gitarra, perkusioa, pianoa, saxofoia, tronpa, tronpeta, txistua, biolina eta biola ikasten duten ikasleek. Emalandietan ikasleek Miguel Ángel Aguirre, Leyre Lisarri, Michel Reynoo eta César Vallejo pianisten laguntza izango dute.



Ezker eskuin: Leire Unzué (saxofoia), Itziar Calvo (flauta), Amaia Valdés (gitarra) eta Beltrán Muerza (bombardino).